

FELIPE ARRESE BEITIA (1841-1906) (OTXANDIO'KO OLERKARI TA SANTUGIÑA)

Aurten bete dira, urterillaren 16n. egunean, eun urte Felipe Arrese Beitia Otxandio'ko olerkari ta santugiña il zala.

Orregaitik egin jakoz omenaldi gogoangarriak Otxandio'n bertan eta Txurdinaga'n dagoan Begoñazpi ikastolan.

Begoñazpi'ko ikastolearen sortzailleetariko bat Josune Zearra izan zan eta, ain zuzen be, Josune au Arrese Beitia'ren illobea da.

Ez da arritzekoa ba, ikastola onetan ain egokiro ospatu izatea 100n. urte au. Gaiñera, egun orretarako Arrese Beitia'k egiñeko irudiakaz eta berak idatzitako jatorrizko idazkia-kaz erakusketa gogoangarria gertatu dabe.

Antxe izan zan Karmelo Etxenagusia Bilbao'ko Gotzain Laguntzaillea eta Josune'ren senarra dan Sabin Zubiri eta biak egin ebezan Arrese Beitia'ri buruz berbaldiak.

Felipe Arrese Beitia'ren bizitzan iru gauza aitatu bear doguz.

Lenengo, olerkaria zala: Lege Zarrak kendu euskuezalako negar egiten daben areitarikoa dogu. Eta orduko lege zarrak eta gaurko aber-tzaletasuna gauza bat bera dira.

Bere olerkiak beroak, euskaltasun aundikoak eta biotzera sartzen diranak doguz.

Bigarren, santugiña zala: Gas-teiz'en ikasi eban marralaritza eta orren ondorioz pozik egiten ebazan eleizetako irudiak eta irudi orreik elei-

za askotan dagoz. Batzutan, esaterako garbitokiko arimak agertzen diranean, oso mintsu agertzen da santugiña.

Irugarren, erri-gizona zala: Izaten dira errietan olako sen aundiko gizonak, eta Otxandio'n olakoa zan Felipe Arrese Beitia. Etxean arazoren bat eukenak beragana joaten ziran pozaren eta onuaren billa eta berak biotz onez eta begi zurrez emoten eutson bakoitxari bear eban aolkua edo zuzenbidea.

Poztu gaitezkan olako gizonak sortzen dauzan ama aberri baten jaio ta azi garalako.

Amaitzeko bere bertsotxu bat daukazu emen, irakurle

OLAZAR'tar Martin'ek



"Ez beietan ja ez dot ikusten
Tubalen ume zintzorik,
ez dalako gaur emen entzuten
erdera baño besterik.
Onexek dauka nire biotza
naibagez erdibiturik,
ez dodalako gure euskera
osatuko dan usterik"